

ESKUBIDEAK BORROKATZEN ESKURATZEN DIRA



Lanaren
Konfederakunde
Nagusia



Ez digute sinisturaziko ezta isilaraziko

Langilegoaren arazoan irtenbide gisa aurkeztu zena **desengainu berri eta handi bat** besterik ez da izan; erreforma berriak, bere burua historiako gobernu aurrerakoiaren bezala izendatu duen gobernuaren eskutik, 2010eko (Zapatero-ren gobernuak) eta 2012ko (Rajoy-ren gobernuak) lan erreformek aurreratu zituzten alderdi kaltegarriak zilegitasuna eta konfirmazioa ematea bakarrik ekarri du.

Beste kontuen artean, **kaleraketak errazten zituzten mekanismoak mantentzen dira** (indemnitazioak edota tramitazio soldatak ez dira berrreskuratzen), **kaleraketa kolektiboak** burutu ahal izateko aurreikuspen ekonomikoak (etorkizunerako aurreikusten diren galerak) arrazoi ukiezinak edo **lan agintaritzaren EREtan ez sartzea** mantendu egiten dira.

Enpresetako hitzarmenei dagokienez, **soldata berdintasuna bakarrik bermatzen da**, baina beste guztia ez. Azpikontratazioaren arloan, zalantzarik gabe epaitegietan borrokatu behar da, **lan berdina burutu arren soldata berdina jasotzen ez dutenentzat** ez baita irtenbide argirik eskaintzen.

Eta bitartean, bizitzaren kostuak abiada bizian garestitzen jarraitzen du, langilegoaren errentak erritmo berean hazten ez direnean. Kasu batzuetan, **gehiengoa duten sindikatuen konplizitate aktiboarekin**. Bestetan, gobernatzen dutenen pasibitate kalkulatuarekin. Behar beharrezkoak diren ondasunak hilabetetik hilabetera salneurri errekorak lortzen dituzte. **Soldatek eta oinarriko errentek ez dute bizitzaren kostuaren garestitzea berdinduko dituzten eguneraketarik jasotzen**. Fronte guztietan berdina ikusi dezakegu: baliorik irabazten ez duten pentsioak, izoztu egiten diren hitzarmenak...

Orain, gainera, COVID 19aren krisialdiaren ondorioak ordaintzen hasi garenean, Ukrainiako gerrarenak datozkigu. **Sistema kapitalistak haren makineria lanean jarri du berriz ere langileok sakrifizioak onartu ditzagun**, eta betiko moduan egingo dute, berriro ere salduko gaituzten sindikatu handien konplizitatearekin, Errenten Ituna delakoaren bitartez lan erreformekin egin duten moduan.

CGT-LKNri ez diote sinisturaziko ezta isilaraziko, **zeruak indarrez hartzea hitz ematen zutenen aldetik** hamaika operazio propagandistiko egin arren. Gizarte **konkistak kalean lortzen dira eta ez hauteskundeetan**. Benetako gizarte lorpenak, egiazko eraldaketa bat suposatzen dutenak, inoiz ez dira oligarkien arteko itunetatik sortu.

Eskubideak borrokatzen eskuratzen dira